



PARTAIDETZA PROZESUAK DISEINATU ETA MARTXAN JARTZEKO GIDA

2016ko Ekaina

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

AURKIBIDEA

1. Partaidetza prozesuak diseinatu eta martxan jartzeko gidaren aurkezpena.

2. Sarrera: Gidaren helburuak eta egitura.

3. Abiapuntua:

- a. Esparru orokorra.
- b. Araudi testuingurua.
- c. Partaidetza estrategia.

4. Partaidetza prozesuak pausoz pauso landuz.

- a. 1. fasea. Hasteko, antolakuntza.
- b. 2. fasea. Zehatz ditzagun 7 G-ak (Galderak).
- c. 3. fasea. Jardun baino lehen, komunikatu egin behar da.
- d. 4. fasea. Has gaitezen lanean: partaidetza prozesua martxan jartzea.
- e. 5. fasea. Gakoak identifikatuz: emaitzei buruzko txostena osatzea.
- f. 6. fasea. Neurriak hartuz: prozesuaren emaitzen berri ematea eta konpromisoak hartzea.
- g. 7. fasea. Lana balioetsiz: partaidetza prozesuaren ebaluazioa.

5. Bibliografia.

AURKEZPE NA

Gidaren aurkezpena Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaria eskutik.

Politika publikoen diseinuan eta exekuzioan herritarren partaidetza eta esku-hartzea sustatzea da gure Administrazioaren agendan indarrez sartu den gobernantza ulertzeko modu berriaren funtsezko oinarria.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere erronka hori dauka bere aurrean, eta horregatik, herritarren partaidetzaren erakundetze etengabearen alde aurrera egin nahi du, irmo gainera.

Legealdi honetarako zehaztutako helburua da Gobernu Ona izan dadila Gipuzkoako Foru Aldundiaren identitate ezaugarri nagusia. Egunero lan egiten dugu Foru Aldundiko ordezkari politikoen jarrera, zerbitzuen prestazioa eta administrazio ereduaren eredugarri izan daitezen, eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari dagokionez, herritarren partaidetzari eta eragile sozialei paper protagonista emateko politika publikoak garatzeko orduan.

Horretarako, balio publikoa sortzeko orduan, herritarrekin baterako erantzukizuna sortzeko baliabide gisa ulertzen dugu herritarren partaidetza. Gizartea osatzen duten pertsonengan jartzen dugu arreta, herritarren kidego izaera sustatuz, baita ingurunearekiko eta ongizate komunarekiko konpromisoa ere. Gure ustez, berrikuntza publikoko prozesuek herritarrak

barne hartu behar dituzte, ez azken erabiltzaile gisa bakarrik, baizik eta arazoa jasaten duten edo premiak edota irtenbideak ikusten dituzten diseinatzaile eta aplikatzaile gisa ere bai.

Irizpide horiek oinarritzat hartuta, Gipuzkoarako proposatzen dugun partaidetza eredu ezin da erabat abstraktua izan. Eredua argia eta zehatza izan behar da. Behar bezala planifikatu behar da, eta galdera hauek behar bezala erantzun behar dira horretarako: zer (gaia), nork (paperak), nola (metodoa), zein baliabide erabiliz (IKTak, aurrekontuak eta abar), noiz (epeak), zergatik (arrazoiak) eta zertarako (helburuak). Horren bidez, jokoaren arauak argi zehazten dira, baita prozesuan zehar eta prozesu amaieran hartu beharreko konpromisoak ere. Jorratu beharreko gaiak, prozesuaren emaitzak, jokoaren arauak, emaitzak berak eta prozesuaren amaieran egin beharreko emaitzen ebaluazioa argiak izatea funtsezkoa da itxaropen faltsurik ez sortzeko.

Horretarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak 2016rako diseinatutako Urteko Planak, Gipuzkoan partaidetza kultura erakundetzeko bidean aurrera egiteko espero diren emaitzen artean aipatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa egitura guztietan, herritarren ekimenak kontuan hartu eta partaidetza kultura sustatzeko antolakuntza egiturak abian jartzea.



Partaidetza prozesuak diseinatu eta martxan jartzeko gida honen asmoa da Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten departamentu eta zuzendaritzei lanerako tresna bat eskaintzea, eta helburu nagusia da partaidetza prozesuak modu antolatua, planifikatu zein egituratua diseinatu eta garatzeko baliabideak eskaintzea.

Beharrezko plangintza horri esker, arintasun eta eraginkortasun handiagoa lortuko dugu eguneroko kudeaketan, eta hala, azkenean, Gipuzkoako gizarte osoa ahalduntzea lortuko dugu (bere aberastasun eta aniztasun zabalean), herritarrak konturatu daitezten dagokien eskubidea dela gizartean eragina duten erabaki politiko eta publikoetan parte hartu zein horietan eragina izatea; baina baita gizarte honetako partaide guztien betebeharra dela ere.



SARRE RA

Gida honen asmoa da erabilera praktikorako tresna izatea, eta bere helburu nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eta zuzendaritzetan sustatzen diren **partaidetza prozesuak abian jartzen laguntzea**.

Horretarako, eredu praktiko eta argi bat proposatzen da gida honetan, horren bidez, partaidetza prozesuak garatzeko. Arreta berezia emango zaio partaidetza sustatzeari, **partaidetza prozedurak hobetzeari eta horien emaitzak ezagutzera emateari**.

Horretarako, **gida hau bi atal nagusitan banatzen da:**

1. ABIAPUNTUA

Horren barne daude gai honen inguruan dagoen esparru nagusia, partaidetza prozesuak garatzen diren araudi testuingurua eta Foru Aldundiaren Partaidetza Estrategia, herritarren partaidetzarako jarraibideak testuinguruan kokatu eta zehazten dituena.

2. PARTAIDETZA PROZESUAK PAUSOZ AUSO LANDUZ

Gipuzkoako Foru Aldunditik edozein partaidetza prozesu sustatzeko, hori diseinatzeko orduan kontuan hartu beharreko elementuak modu zehatuzan deskribatzen dira atal honetan. Horren bidez, partaidetza prozesuak diseinatu eta aplikatzeko ardura duten pertsona guztiei tresna zehatzak eman nahi zaizkie.

ABIA PUNTUA

A. Esparru orokorra

Gero eta administrazio publiko gehiagoren erronka berria da egitura global eta koherente bat ezartzen lortzea, bat datorrena bai ohiko lan moduekin bai erakundeak herritarren benetako partaidetza errazteko eskaintzen dituen aukerekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere erronka hori dauka bere aurrean, eta horregatik, herritarren partaidetzaren erakundetze etengabearen alde aurrera egin nahi du, irmo gainera.

Datozen lau urteetan Gipuzkoako Foru Aldundian herritarren partaidetza erabat finkatzea nahi dugu. Herritarren partaidetza, betiere ordezkari politikoen eta herritarren arteko lankidetzara iraunkor gisa ulertuta, ekimen eta politika publikoak eztabaidatu, proposatu eta erkatzeko.

Herritarren partaidetza finkatu eta erakundetzeko xedea behar bezala jasota ageri da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Plan Estrategikoko 13. helburuan (“herritarrekiko harreman irekia finkatzea, eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzea”), eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak diseinatutako 2016ko Urteko Planean zehaztutako ekintzetan gauzatzen da xede hori.

Legealdi honetako herritarren partaidetzarako lehenengo Urteko Plana garatzean oinarrizko sei emaitza lortuko dira Gipuzkoan partaidetza kultura erakundetzeko bidean aurrera egiteko:

1

Herritarren ekimenak kontuan hartu eta partaidetza kultura sustatzen duten antolakuntza egiturak martxan jartzea.

2

Partaidetza kultura gehiago eta irmoagoa edukitzea Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa esparru guztietan.

3

Herritarrekin, gizarte erakundeekin eta udalekin ohiko lankidetzara iraunkor hobia eta handiagoa dagoela erakusten duten frogak egotea.

4

Herritarrentzako eskuragarri dauden gidak osatzea, herritarren partaidetza ulertu eta erabiltzeko.

5

Partaidetza prozesuen garapenean gizarte eta teknologia tresnak modu sistematikoan erabiltzea.

6

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta herritarren artean informazio eta komunikazio kanalak sortzea, erabilgarriak eta erabilerrazak direnak.

2016ko Urteko Planaren barne herritarren partaidetza indartu, zabaldu, erraztu eta ezagutzera emateko zehaztutako ekintzek herritarrek Foru Aldundiarengan duten konfiantza errekuaratzen lagunduko dute, baita gure jardunbide politikoa eraldatzen ere, ilusio, itxaropen eta erronkaz beteriko garai berri honetara egokitzeko. Horri esker, gure gobernu indartzeaz gain, gure politika publikoak legitimatzeko, gizarte aniztasuna txertatzeko, interes sozialak Foru Aldundiaren agenda publikoan sartzeko eta herritarrak bizitza publiko antolatze prozesuetan inplikatzeko aukera izango dugu.

B. Araudi testuingurua

2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak, Gipuzkoako Foru Aldundiko herritarren partaidetzari buruzkoak, lau kapitulu ditu, eta horien bidez, herritarren partaidetzarako antolakuntza arautzen du.

Partaidetza sistemak oinarritzat hartzen ditu Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean dauden konfiantza eta erantzukizun harremanak. Egitura horren barne sortu da Herritarren Partaidetzarako Gipuzkoako Gizarte Kontseilua, herritarren partaidetzari buruzko kontsulta organo gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura sektore ezberdinetan pertsona ospetsuak biltzen dituena.

Arestian aipatutako Foru Arauak xedatutako herritarren partaidetzako gobernuak zuzendaritza eta koordinazio organo bat behar du. Horretarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea ezarri da, eta bertan Foru Aldundiko departamentu guztiak daude ordezkaturik. Baina, aldi berean, partaidetza prozesuak kudeatzeko orduan, autonomia tekniko edukitzeaz gain, partaideen aurrean, eta oro har herritarren aurrean sinesgarritasuna eduki behar da. Horretarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza ezartzen da, eta horren ardura izango da partaidetza prozesuak egitea.

Azkenik, Foru Arau horrek xedatutakoaren arabera, Partaidetza Programa izan behar da Foru Aldundiaren jardura biltzen duten herritarren partaidetzarako proposamenak biltzeko tresna. Gainera, Foru Arauan ezartzen den herritarren partaidetzarako ereduak lortu nahi diren helburuen eta abian jarritako berrikuntzen arabera gobernu sistema ezartzea eskatzen du.

Partaidetza kultura indartzeko atalean aipatzen den jardueretako bat da Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arau berria onartzea. Hain zuzen ere 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, esparru honetan xedatzen dituen aldaketetara egokitutako Foru Arau eguneratu berria, herritarrek politika publikoak osatzeko orduan parte hartzeko daukan eskubidea erraztu eta sustatzeko, gai publikoetan populazioaren protagonismoa eta inplikazioa areagotzeko jarduerak bideratuz, eta indar politikoek herritarrekin intentsitate handiagoarekin lan egiteko konpromisoa hartzeko, hala, herritarrek administrazioa berezko senti dezan, eta azken horrek eraginkortasun, eragingarritasun, gardentasun eta erantzukizun printzipioen arabera jardun dezan.

C. Partaidetza estrategia: Herritarren Partaidetzako 2016ko Urteko Plana.

Herritarren Partaidetzako 2016ko Urte Planaren xedea da gizarte osoaren eskaera zein premiei erantzutea. Helburu gisa ezartzen du Gipuzkoako Gobernua berrasmatezea, eraldaketa hori Gipuzkoa garatu zein eraldatzeko bulkada gisa erabiltzea, Foru Aldundiaren politika bakoitzean aplikagarriak diren plangintza, kudeaketa eta ebaluazio jardunbide aurreratu berriak zabalduz eta homogeneizatuz, herritarren partaidetzarako, eragile ezberdinen lankidetzarako eta gardentasunerako bideak irekiz, herritarrek Foru Aldundiarengan duten konfiantza errekupearatzeko.

Herritarren partaidetzaren esparruan indarrean dagoen Foru Araudia betez, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak abian jarritako 2016ko Urteko Plana lau ekintza nagusiren bidez gauzatuko da.

1

Partaidetza kultura **INDARTZEKO** ekintzak, batez ere partaidetzarako organoak sortu eta aktibatzeko helburua dutenak.

2

Partaidetza kultura **ZABALTZEKO** ekintzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak partaidetza prozesuen garapenean inplikatzeko apustu irmoa eginez.

3

Partaidetza kultura **ERRAZTEKO** ekintzak, partaidetza ezagutu eta gauzatzeko tresnak herritarrei eskuragarri jarri.

4

Partaidetza kultura **EZAGUTZERA EMATEKO** ekintzak, bitarteko telematiko eta presentzialen bidez jarduerak ezagutzera emateko ekimen sorta.

Partaidetza kultura errazteko ekintzen atalean, lehenengo puntu gisa ezarri da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako prozesu, ekimen eta proiektuetan aplikagarria den Herritarren Partaidetza garatzeko Eredua zehaztea.

Eredu horrek, zenbait irizpide ezartzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eta zuzendaritzentzako gomendio batzuk ere emango ditu. Foru Aldundiko departamentu eta zuzendaritza ezberdinek sustatutako partaidetza ekimenetan Herritarren Partaidetzako Eredua edo Esparru Nagusia zehazten duten arau nagusiak benetan txertatzen direla bermatzeko jarraibideak.

D. Herritarren partaidetza garatzeko ereduak.

Arestian aipatutako hiru elementuak kontuan hartuz (esparru nagusia, araudi testuingurua eta partaidetza estrategia), esparru honetan aurrera egiteko asmoz, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak herritarren partaidetzarako eredu honen aldeko apustua egiten du, hain zuzen ere ezaugarri hauek dituen:

1

Koherentzia mantendu beharko du Foru Aldundiko departamentu eta zuzendaritza nagusietatik Gobernu Irekian, Gardentasunean, Kontuak Ematean, Open datan eta bestelako esparrutan garatutako ekimenekin.

2

Araudi zehatza eduki beharko du, Partaidetzari buruzko Foru Arauan txertatutakoa, Foru Arau horrek xedatutako eguneraketa zein berformulazioak kontuan hartuta.

3

Eredu errealista izatea, Gipuzkoako idiosinkrasiara egokitutakoa, egituratua eta batez ere eraginkorra.

4

Plan, Programa edota Proiektu bat diseinatu edota aplikatzeko orduan partaidetza prozesu bat txertatzeko premia dagoela zehazteko erabili beharreko gutxieneko aukera eta interes irizpideak ezartzea (legeak edo araudiak horretarako derrigortasunik ezartzen ez duenean).

5

Gizartearentzako interesgarriak diren proiektu eta ekimen zehatzak oinarritzat hartuz lan egitea, hartzen diren erabakiek epe motzera/ertainera izango duten eragina irudikatzeko.

6

Dagoeneko abian dagoena eta ongi funtzionatzen duena azpimarratzea (kontseiluak, foroak eta abar), hori garatzea eta horri ordena zein koherentzia ematea, gaiak gainjartzea eta eztabaidarako espazioak bikoiztea ekidinez, lanerako lehentasunak zehaztuz, hala agintaldi bakoitzean garatzen doazen ekintza eta neurri guztiak planifikatu ahal izateko. Kontsulta izaerako partaidetza egitura iraunkorrak baliotsuak eta beharrezkoak izan arren, ezin gara horrekin konformatu, gai jakin batek erasandako pertsonen gehiengoa, horren inguruan zeresan handia izan arren, prozesutik kanpo geratuko bailitzateke oraindik.

7

Lankidetzarako prozesu zein espazio anitz, ireki eta barne-hartzaileak oinarritzat hartzea, aniztasun horretan bakarrik aurkituko baitugu normalean entzuten ez diren ahotsak inplikatzeko gakoa.

8

Biltzar bidezko partaidetza espazio itxiei edota aniztasun zailantzagarrria dutenei legitimitate-rik ez ematea, gizarteko sektore oso jakinen diskurtsoa eta jarre-
rak gainordezkatzten baitituzte, gainerako herritarrak kontuan hartu gabe.

9

Pertsona ugariren partaidetza erraztea, partaideak sozialki anitzak izan beharko dira, eta lankidetzaren espazio zein kanal ezberdinetan oinarrituta egongo da, horiek guztiak antolatuta, planifikatuta eta egituratuta egon beharko dira (kontsulta kontseiluak, foroak, kaleko dinamikak, talde tailer zein dinamikak, bilera irekiak, informazio hitzaldiak, kontsultak, inkestak, e-partaidetzarako mekanismoak eta abar).

10

Ahalegina egitea gazteak konpromiso publikoan eta gizartean inplikatzeko, beren ohitura eta kezketara hobeto egokitutako partaidetza eta kudeaketa mekanismoak sortuz. Hezkuntza, er-kidegoko eta partaidetza ekintzak jarriko dira abian gazteek gehien erabiltzen dituzten partaidetza esparru eta eskemetan.

11

Partaidetzarako espazio presentzialak eta teknologia berriak bateratzea (Partaidetzarako Atariak, aplikazioak eta abar).

12

Sare sozialak erabiltzen hasteko protokoloak betetzen direla ziurtatzea, baita Foru Aldunditik bertatik sare sozialetan ezarri den adierazpen askatasunaren kudeaketa ereduak ezarri dela ere.

13

Kalitate demokratikoko irizpideen proposamena egitea Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatzen diren partaidetza prozesuak ebaluatze-ko.

Herritarrak konbentzitzea parte hartzea erabilgarria eta eraginkorra dela ikus dezaten, betiere partaidetza prozesuak behar bezala planifikatu eta aplikatzen direla bermatuz.

14

Barne hartzaileak, interes ezberdinetako pertsonen eta taldeen proposamenak biltzeko dinamikak eta bideak proposatzen dituztelako.

Gardenak, gaiari buruzko adostasunak eta desadostasunak modu zehatzean biltzen dituelako, baita horietara iristeko erabilitako baliabideak ere.

Irisgarriak, emaitza gisa lortzen den informazioa modu ulergarrian eskuragarri jartzen baitzaie herritarrei.

Eragileen arteko lankidetza pizten dutenak, ahalik eta kolektibo gehienetara iristeko bide zein baliabideak erabiliz, horretarako xede berean interesa duten bitartekoak erabiliz, betiere ahaleginak zein baliabideak bikoiztu gabe eta funtsezkoak ez diren baliabideak erabili gabe.

Eredugarriak, beren eraginkortasunagatik eta herritarrekin batera benetako sortze prozesua abian jartzeko printzipioa errespetatzeagatik, jardunbide egoki gisa erabiltzen direlako.

Pertsona ugari eta sozialki anitzen partaidetza errazten dutenak izatea.

Eraginkorrak eta eragingarriak izatea, partaidetza ekimenen benetako eragina irudikatzeko aukera ematen baitute, hain zuzen ere ildo horretan hartzen diren behin betiko erabakien inguruan.

PARTAIDETZA PROZESUAK PAUSOZ PAUSO LANDUZ

Partaidetza prozesuak diseinatu eta aplikatzeko lan protokoloak horrelako prozesu bat abian jartzeko orduan eman beharreko pausoak modu xehatuan azaltzen ditu.

Proiektu zehatz bakoitzaren premietara egokitu daitekeen ibilbide orri bat ematen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Plan Estrategikoan eta Partaidetza Ereduan zehaztutako irizpideekin bat datorrena.



1. FASEA
**HASTEKO,
ANTOLAKUNTZA**



3. FASEA
**JARDUN BAINO
LEHEN, KOMUNIKA-
TU EGIN BEHAR DA**



5. FASEA
**EMAITZEI BURUZKO
TXOSTENA OSATZEA**



7. FASEA
EBALUAZIOA



2. FASEA
**ZEHATZ DITZAGUN 7
G-AK (Galderak)**



4. FASEA
**PARTAIDETZA
PROZESUA
MARTXAN JARTZEA**



6. FASEA
ITZULKETA

1. FASEA

HASTEKO, ANTOLAKUNTZA.

Foru Aldunditik susatutako partaidetza prozesuak kudeatzeko bi egitura mota sortu behar dira:

1

Partaidetzarako Lantaldeak (zuzendaritza nagusi bakoitzeko lantalde bat, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzarena izan ezik).

2

Partaidetzarako Lan Mahaiak (departamentu bakoitzeko bat).

Cada Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako zuzendaritza nagusi bakoitzak Partaidetzarako Lantaldea bat sortuko du, eta azken horren ardura izango da herritarren partaidetzarekin zerikusia duten ekimenak martxan jartzeko alderdi ezberdinak garatzea.

Lantalde bakoitzaren izenak dagokion zuzendari nagusiari egingo dio erreferentzia: Araubide Juridikoko Partaidetzarako Lantaldea, Funtzio Publikoko Partaidetzarako Lantaldea, Kanpo Harremanetako Partaidetzarako Lantaldea eta abar.



3 pertsonek osatuko dute lantalde bakoitza: zuzendari nagusiak, zuzendari nagusiko zerbitzuburuak eta zuzendaritza nagusi horri atxikitako teknikari batek. Lantalde bakoitzean parte hartuko duen teknikaria hautatzeko orduan, bakoitzaren prestakuntza, aurretiko esperientzia edota gaian (herritarren partaidetzan) duen interesa kontuan hartuko dira; edonola ere, zuzendari nagusiaren iritzia baldintzapean egongo da.

Hala ere, Lantalde bakoitzerako izendatutako erreferentzia teknikari bakoitzak berriazko prestakuntza jasoko du partaidetzaren, komunikazioaren eta teknologia berrien esparruan, baita sare sozialen kudeaketan ere. Hala, esparru horien inguruko gai guztiei dagokienez, erreferentzia gisa jardungo du.

Horretarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak 2016rako diseinatutako Urteko Plana gauzatzeko orduan, partaidetza kultura errazteko ekintzen artean, herritarren partaidetzari buruzko berriazko prestakuntza jarriko da abian (ikastaroak, prestakuntza moduluak eta abar), hain zuzen ere Partaidetzarako Lantaldeetako partaideei zuzendutakoak, hala, esleitutako eginbeharrak behar bezala gara ditzaten.

Uneoro Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari atxikitako teknikarien laguntza jasoko dute, azken horien ardura izango baita herritarren partai-

detza prozesuei buruzko jarraipena egitea eta horien inguruko aholkularitza ematea. Berriazko kronograma baten bidez alde aurretik zehaztutako lan dinamika izango dute, eta bilera programatuak egingo dituzte gutxienez hilean behin.

Aldi berean, Partaidetzarako Lan Mahaia izeneko antolakuntza egitura bat sortuko da departamentu bakoitzean. Horren funtzioa izango da koherentzia bermatzea, sinergiak erraztea eta koordinazioa sustatzea Lantalde ezberdinen artean, baita departamentu bakoitzetik sustatutako herritarren partaidetzarako ekimenen artean ere.

Partaidetzarako Lan Mahaiko kide izango dira departamentuko foru diputatua, Herritarren Partaidetzarako foru zuzendaria eta zuzendaritza eta zuzendaritza nagusi bakoitzera atxikitako zuzendari nagusi eta zerbitzuburu guztiak. Berriazko kronograma izango dute, eta bilera programatuak egingo dituzte hiru hilabetez behin gutxienez. Beharrezkoa jotzen bada, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzako teknikarien aholkularitza ere jasoko dute.

Azken batean, honako hau koordinatu, egiaztatu, baliotzi eta ebaluatuko duen egitura izango da:

1

Proiektuen identifikazioa eta hautapena 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoari lotutako irizpideen azterketa oinarritzat hartuta.

2

Partaidetza dinamika programatuen diseinua eta aplikazioa, baita partaidetza prozesu bakoitzean lortutako emaitzak ere, alde aurretik zehaztutako kalitate demokratikoko irizpideak oinarritzat hartuta.

2. FASEA

ZEHAZT DITZAGUN 7G-AK (Galderak).

Zuzendaritza nagusi bakoitzean sortutako Partaidetza-rako Lantaldeek izango dute partaidetza prozesuaren esparruan diseinatu edo aplikatu daitezkeen proiektuak identifikatu eta hautatzeko ardura.

Herritarren partaidetza bidez lantzeko identifikatutako proiektu bakoitzaren fitxa bat aurkeztuko da. Fitxa horrek formatu berdina izango du beti, eta jarraian zehaztutako informazioa modu argi eta zehatzean jasoko da bertan, elementu horiek izango baitira prozesuaren oinarri, eta hein handi batean, horien arabera izango baita prozesuaren arrakasta.

Momentu horretan, 7G edo 7 galdera hauek erantzun argi eta zehatza eman behar zaie: zer? noiz? nor? zenbat? non? zertarako? zergatik?

1 ZER?

Zer landuko da?

Zein gai zehatz jorratuko da prozesuan? Zein elementu proposatuko da prozesu bakoitzean? Prozesu bakoitza identifikatzeko eta zehazteko izenburu bat asmatu beharko dugu, eta bi deskribapen eman beharko ditugu (laburra bata, eta pixka bat luzeagoa bestea), publiko ezberdinek prozesuaren funtsezko alderdiak zein diren behar bezala uler dezaten.

Ildo horretan, erabilgarria izango da prozesua ulertu eta hori testuinguruan kokatzeko material grafikoa erabiltzea. “hobe da irudi bat mila hitz baino” esaera jarraituz, irudiak erabiltzean, ulertzeko errazagoa izango da publiko zabalarentzat.

2 NOIZ?

Noiz egingo da lan, eta zenbat denboran zehar? Noiz hasiko gara lanean? Noiz hasiko gara prozesuaren emaitzak edo horri buruzko informazioa eskuratzen?

Kronograma bat garatu behar dugu partaidetza prozesua egiteko. Beharrezkoa da egutegi bat zehaztea, bertan mugarrak eta epeak ezartzeaz gain, prozesu osoaren zein prozesuaren fase ezberdinen hasiera zein amaiera datak zein epeak ezartzeko, eta prozesuan inplikaturako eragile guztiek horiek ezagutu ditzaten.

Partaidetza prozesuaren iraupena ezberdina izango da bertan zehaztutako fase edo mugarren arabera. Ez dago prozesu guztietarako iraupen estandarizatu bat, errealitate eta baldintza bakoitza ezberdinak baitira, eta prozesuak horietara egokitu behar baitira. Hala ere, beti zehaztu beharko da horizonte argi bat, prozesuak irauten duen denboran zehar helburu eta epe zehatzak ezarri eta norabide edo estrategia ez galtzeko.

Partaidetza prozesu berriari erreferentzia egiten dion jarduera esparruaren barne, udal, eskualde zein foru mailan edota maila handiagoan abian jarritako prozesuak kontuan hartu beharko dira. Ez da komeni prozesuak hartu-emanak izatea alde aurretik abian jarritako eta egun finkatuta dauden prozesuekin (baldin eta beharrezkoa eta ezinbestekoa ez bada). Izan ere, hartu-emanek proiektu berria kutsa dezakete, baita horren jarduera gaitasuna, proiektzioa edo herritarrengan izan dezakeen eragina mugatu eta murriztu ere.



3 NOR?

Nor izango da prozesuaren publiko objektiboa?

Partaidetza prozesuan norke parte hartuko duen hartu beharko da kontuan. Garrantzitsua da partaidetza prozesuan zehar presentzia izango duten partaideak kontuan hartu eta aurreikustea. Horien jarduera gaitasuna eta eskaera zehatzak ezagutzea.

Halaber, ezinbestekoa da prozesua zein publikori zuzentzen zaion identifikatzea, informazioa helarazteko lengoia eta bitartekoak zehazteko garaian, baita prozesua gauzatzeko lekuak eta horretarako erabiliko diren kanalak ere.

Halaber, prozesuek herritarrentzat sortuko dituen ondorio eta inplikazioek zein irismen izango duten ere zehaztu beharko da, zuzenean edota zeharka inplikaturako pertsona edo kolektiboak kontuan hartzeko.

Azkenik, jorratu beharreko gaiaren inguruan ahalik eta adostasun politiko handiena lortzeko lan egitea komeni da, prozesua blindatu eta kanpoko faktoreek bertan eraginik ez izateko.

4

ZENBAT?

Zenbatekoa izango da prozesuaren irismena?

Partaidetza prozesuaren irismena argi zehaztu beharko da bai erabakiak hartzeko momentuan, bai prozesuaren diseinuan zein sorkuntza herritarrek egiten duten ekarpenaren inguruan ere. Elementu garrantzitsua da, populazioak itxaropen faltsurik izan ez dezan, eta etorkizunean antzeko prozesuetan parte hartzeko interesa gal ez dezaten.

Partaidetza prozesuari buruzko arauak argiak izan beharko dira eta ongi zehaztuta egon beharko dira. Gainera, kontuan hartu behar da gizarteak horren inguruan eskaerarik egin duen alde zehatzetik, edota administrazioaren apustua bakarrik ote den. Gizartea prozesuaren kontra badago, prozesua sentikorra bada gizartearen ikuspegitik eta alde zehatzetik nolabaiteko garapenik badu, kontu eta sentikortasun handiz jorratu beharko da.

5

NON?

Zein izango dira muga geografikoak?

Prozesuaren lurralde eta gizarte irismen estimatua kontuan hartuko da. Udal, eskualde edo foru mailako proiektua izango da. Gainera, ikuspegi zehatzago batetik begiratuta, partaidetza prozesua garatzeko kokalekuak alde zehatzetik zehaztu beharko dira. Fase eta kokaleku ezberdinak egongo badira, horiek alde zehatzetik zehaztuta egon beharko dira, eta sektore sozial partaide ezberdinen premiak aseko dituzte irisgarritasunari edota baliabideen ezagutzari dagokionez.

6

ZERTARAKO?

Zein dira helburuak?

Prozesua behar bezala kokatu eta bermatzeko, ezinbestekoa da modu argi eta zehatzean adieraztea zein elementu inplikatzeko dituzten herritarrak, eta zein heineraino izango diren elementu horiek onuragarriak herritarrentzat.

Herritarren partaidetzak irauten duen bitartean eta prozesua amaitu ondoren sortuko diren onura, kausa eta eraginak. Horretarako, alde zehatzetik funtsezko alderdien analisia egin behar da, eta prozesuaren helburuak zehaztu behar dira. Zer lortu nahi da prozesu honekin? Zein onura izango ditu? Zein kalte sortuko ditu? Norentzako?

7

NOLA?

Nola jarriko gara martxan?

Prozesuaren fase bakoitzaren garapenerako zein baliabide material, fisiko informatibo edota teknologiko edukiko diren aurreikusi beharko da.

Metodologiari eta materialei dagokienez prozesua nola egingo den zehazten bada, prozesua garatzeko orduan, zehaztugabetasunak ekidingo dira.

2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak, herritarren partaidetzari buruzkoak, 23. artikuluan xedatzen du Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, bere ekimenez, eta prozedura jakin baten barnean partaidetza prozesu bat egiteko interesa duten herritar erakundeei aurrez kontsulta eginik, edota erakunde horietakoren baten ekimenez, ezarri ahal izango duela partaidetza prozesua beste modalitate edo tresna batzuen bidez garatzea, edo beste aldagai batzuk sartu ahal izango di-

tuela foru arau honetan ezarrita dagoen partaidetzako deliberazio prozesuan. Aipatu berri dugun Foru Arauko 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru arau horretan jaso gabeko partaidetzarako tresna berriak ezarri ahal izango ditu Foru Aldundiak, herritarren partaidetza helburuak betetzeko egokiak direla frogatuta baldin badago.

¿QUÉ?

EL TÍTULO

- Temática
- Información relevante

¿CUÁNDO?

LOS PLAZOS

- Cronogramas
- Principio y fin

¿QUIÉNES?

EL PÚBLICO

- Tipo de público al que se dirige
- Características del mismo

ZENBAT?

MUGAK

- Erabakiak hartzeko gaitasuna
- Jokoaren arauak

NON?

KOKAPENA ETA IRISMENA

- Lurralde izaera
- Lekuak eta Baliabideak

ZERTARAKO?

HELBURUAK

- Onurak
- Abantailak

NOLA?

BALIABIDEAK

- Metodologiak
- Materialak

3. FASEA

JARDUN BAINO LEHEN, KOMUNIKATU EGIN BEHAR DA.

Partaidetza prozesua eta hori kokatzeko esparrua zehaztu eta xehatu ondoren, ezinbestekoa da horren berri ematea eta hori garatuko dela jakinaraztea bai inplikaturako eragile guztiei, bai herritarrei oro har.

Departamentu bakoitzean izendatutako pertsona jarriko da harremanetan Komunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin, eta proiektuari buruz eskuragarri dagoen informazioa helaraziko du, epe eta modu egokian, hain zuzen ere partaidetza prozesua martxan jarri aurretik, herritarrek horren berri izan dezaten.

Prozesuaren ezaugarrien arabera, eskuragarri dauden informazio kanalak identifikatuko dira, ahalik eta pertsona gehienek partaidetza prozesuaren berri izan dezaten.

Etorkizunean pertsona horiek ekimenean zuzeneko parte hartzaile izan ez arren, informazioa eskuragarri edukitzeari esker, herritarrek demokratikoki kolektibo indartsuago eta ahaltsuago bihurtzen dira; horrez gain, partaidetza kultura sustatzen da, eta Administrazioak unean-unean egiten duen lana agerian jarri eta azpimarratzen da.

Prozesuaren komunikazioa behar bezala egiteko, osoko komunikazio estrategia bat zehaztuko da, eta baliabide zein kanal ezberdinak zehaztuko dira bertan: Idatzizko zein ahozko komunikabideak, sare soziala edota proiektu horri buruzko atal berezia Herritarren Partaidetzarako Atariaren barne.

Hasiera batean erraz identifikatzeko modukoa izan beharko da, eta prozesuaren hasiera, batez ere, leku aipagarria eduki beharko du webgunean. Denborak aurrera egin heinean, eta prozesua behar bezala finkatuta dagoenean, eta martxan nahikoa denbora daramanean, ez zaio horren leku aipagarria emango webgunean, bertako kokapena irisgarria eta intuitiboa izan beharko da oraindik ere. Momentu horietan, partaidetzari buruzko foru webgunean informazioa aurkitu nahi dutenek, ongi jakingo dute hori non aurkitu dezaket.

Nola iris gaitzke adierazitako pertsona eta eragileengana?


Prozesua oro har herritarrei jakinarazi ondoren, funtsezkoa da herritarrei informazio zehatza emateko fase bat abian jartzea. Bertan, partaidetza prozesua azpimarratzeaz gain, herritarrek bertan inplikaturako dira, horretarako, kasuan kasu “ad hoc” diseinatu eta zehaztutako komunikazio estrategia erabiliz.

Nola eta nora helarazi behar de informazioa?

Komunikabide ohikoenak erabiltzeaz gain, garrantzitsua da denboran zehar kanpaina iraunkoragoak egitea, horien bidez prozesua eta horri buruzko informazioa herritarrei ezagutzera emateko.

Komunikabideek eragin puntuala dute, baina egun hartan komunikabide horiek entzun/ikusi zituzten herritarrek bakarrik dute horren berri. Horrez gain, prozesuaren publiko objektibo diren kolektiboek zuzendutako informazio jardura zehatzak egitea ere komeni da.

Publiko orokorrari zuzendutako deialdi presentzialak egitea komeni da, hala, aktibotasun edo ahalduntze maila apaleneko kolektiboetara gerturatu ahal izateko. Deialdi horiek zenbait formatu eduki ditzakete:



1

INFORMAZIO HITZALDIAK

Informazio hitzaldiak deitu eta egitea parte hartze- ra deitutako herritarrentzako erreferentzia lekuetan (gizarte zentroak, kultura gelak, liburutegiak, gazte-lekuak eta abar). Hala ere, kanal horren egokitasuna balioetsi beharko da, betiere prozesuaren ezaugarriak eta horiek abian jartzeko zailtasuna kontuan hartuta.

Izaera ireki eta publikoko informazio hitzaldi horien helburua da dinamizatu, informatu eta parte hartzera animatu beharreko kolektiboetara gerturatzea. Kolektibo antolatuak, elkarte politiko, kultural edo sozialak parte hartzeko prest daude. Inoiz hitz egiten ez dutenen edota beren iritzia inoiz entzuten ez den kolektiboetara ere iristea da gakoa.

2

JENDAURREAN MODU IRAUNKORREAN IKUSGAI JARTZEA

Jarduera abian jarriko den lekutik gertu dauden lokaletan (gizarte zentroak, kultura gelak, liburutegiak, gaztelekuak, informazio karpak eta abar) epe luzeagoan jendaurrean jartzean, bestelako kolektiboetara iristeaz gain, informazioa errazago helarazten da, eta komunikabide kanal informalagoak ere garatzen dira. Publiko ezberdinei prozesuaren berri emateko orduan, infografiak, eta material grafiko erakargarri eta ulergarriak erabiltzea gomendatzen da.

Horrez gain, infografia formatuan dagoen informazio guztia Herritarren Partaidetzarako webgunean horretarako zehaztutako atalean ere eskuragarri egongo da. Hala, informazio hori kontsultatu nahi duen edonork eskuragarri izango du, eta horrez gain, prozesuari buruzko material gordailua ere osatuko da, eta hori edozein momentutan erabilgarri izan daiteke.

4. FASEA

HAS GAITEZEN LANEAN: PARTAIDETZA PROZESUA MARTXAN JARTZEA

Prozesuaren berri eman eta hori jendaurrean jarri ondoren, partaidetza fasean zehar erabiliko den metodologia oso ongi zehaztuta eduki beharko da, baita prozesuaren mugak eta irismena ere.

Garrantzitsua da herritarrek hasiera-hasieratik jokoaren arauak ezagutzea; baita programaturako faseak edota pausoak eta partaidetza prozesuaren hasiera zein amaiera datak ere.

Metodologia hautatzeko orduan, 2. fasean egindako galderak erreperatu beharko dira: zer? noiz? nor? zenbat? non? zertarako?

Partaidetza prozesuak martxan jartzeko orduan metodologia mota oso ezberdinak erabili daitezkeen arren, gida honetan tresna edo erreminta jakin batzuk erabiltzea proposatzen da orientabide gisa, hala, prozesu guztiek forma eta funts koherentea izan dezaten.

Tresna edo erreminta guztiak ez dira partaidetza prozesu ezberdinetarako egoki edo aproposak. Prozesu bakoitzaren izaeraren, ezaugarrien, garapen faseen, irismenaren eta abarren arabera, tresna batzuk ala besteak hautatu eta erabiliko ditugu.

ZEIN D(IR)A TRESNA EGOKIENA(K)?

TRESNA	DESKRIBAPENA	ERABILERA GOMENDIOA
TRESNA IRAUNKOR ETA ANTOLATUAK		
Partaidetza publikorako kide anitzeko organoa	Administrazio publikoek lege arau baten bidez sortutako talde iraunkorra, bere jarduera esparruari buruzko gaiak aztertu eta gomendio erabilgarriak emateko.	Gai oso teknikoa edo oso zaila denean osatuko da horrelako organo bat, baldin eta berariazko prestakuntza beharrezkoa bada.
Foro iraunkorra	Administrazioak hartutako erabakien jarraipen zein berrespenean parte hartzen duten eragileek osatutako ordezkari talde organoa.	Iraupen luzea izango duten eta jarraipena behar duten proiektuetarako diseinatu eta antolatzen da.
Foro edo mahai tematikoa	Deialdi irekia da, bertan emaitzak edo etorkizuneko ekintza proposamenak aurkezten dira, eta publikoak galderak edota proposamenak egin ditzake (zuzenketa edota ekarpen osagarri gisa).	Gai jakin batean oso ardaztuta dauden deialdietan erabiltzen da, berariazko tratamendua eskatzen baitu.
Online foro eta eztabaida	Linean dagoen eztabaida espazioa, alde zehatzetako gai bati buruzkoa, kanpoko eragile batek moderatutakoa.	Gai zehatzei buruz eztabaida egin eta ekarpenak biltzeko erabiltzen da.
Herritarren Kontseilua	Pertsona multzo bat hautatzen da irizpen bat emateko, bertan hautabide baten edo hautabide bat baino gehiagoren abantailak eta desabantailak balioetsiz.	Prozesua luzatzen denean eta partaideen kolektibo batek horren jarraipena egin behar duenean erabiltzen da metodologia hau. Hala ere, organo hau ez dago ixita kanpoko partaidetzaren aurrean.
Delphi teknika	Aditu multzo bat hautatzen da, horiek galdeetuen bidalketa sekuentziatuaren bidez (erantzuna-azterketa-erantzunari buruzko feedbacka) beren iritzia emanez, aukera taula zehaztu bat osatzeko.	Gai oso teknikoa edo oso zaila denean erabiltzen da, baldin eta berariazko prestakuntza beharrezkoa bada.
Sare sozialak	Partaidetza prozesu osoan zehar, sare sozialak erabiltzea komunikaziorako, informaziorako eta partaidetzarako tresna gisa.	Prozesu mota askotan erabiltzen den tresna da, irismen gaitasun handia baitu. Etengabeko moderazio eta dinamizazio espezializatua eskatzen ditu.

TRESNA PUNTUALAK		
Aurrez aurreko inkesta, telefono bidezkoa edo online	Tresna honen xedea da iritzi, ideia, ezaugarri edo egintza zehatzak ezagutzea, horretarako azterlaneko lagin bati edo estatistika populazio osoari zuzendutako galdera normalizatu sorta bat erabiliz lortutako datuak bilduz.	Tresna ezin hobea da proiektu zehatzetan edo pertsona mota oso ezberdinen partaidetza ahalbidetzen duten proiektu zabaletan erabiltzeko.
Etorkizun senari buruzko saiok	Prospektiba tailerrak. Horien xedea da etorkizuneko testuinguruan identifikatu eta hautatzea, pertsona partaideen ekarpenak oinarritzat hartuta.	Dinamika hau oso erabilgarria da pertsona edo elkarte kolektibo zehatz baten itxaropenak ezagutzeko.
Idea lehiaketa	Pertsonei eta kolektiboek proiektuak edo ideiak aurkezteko eskaera egiten zaie, arazo edo erronka jakin bati aurre egiteko.	Sormen prozesuen inguruan ideia berriak sustatzeko erabiltzen da dinamika hau.
Herri kontsulta	Herritarrek plan, programa edo proiektuak bozkatzeko dituzte, hain zuzen ere, proposatutako hautabide ezberdinetatik bat hautatuz.	Aukeratu beharreko hautabide itxi eta elkar baztertzailerak dituen partaidetza prozesuetan erabiltzen da dinamika hau.
Taldeko elkarrizketa	Taldeko elkarrizketak egitea erkidegoan dauden diskurtso ezberdinak identifikatu eta talde dinamizazioa sustatzeko.	Erreferentziako sektore sozialen ikuspegiak ezagutzeko erabiltzen da dinamika hau. Teknika honen bidez, lehentasunezko arreta ematen zaie partaidetza prozesuaren esparru orokorragoaren barne.
Eztabaida taldea	Pertsona taldeen dinamizazioa diskurtso kualitatiboan identifikazio sakona egiteko.	Kolektiboek gai jakin baten inguruan duten ikuspegia modu sakonean ezagutzeko erabiltzen da dinamika hau, aurrerago horren analisia egiteko .
Banakako elkarrizketa	Profil sozial ezberdinen diskurtso eta ikuspegiak identifikatzea, banakako elkarrizketen bidez.	Erreferentziako sektore sozialen, politikoen edo ekonomikoen ikuspegiak ezagutzeko erabiltzen da dinamika hau. Teknika honen bidez, lehentasunezko arreta ematen zaie partaidetza prozesuaren esparru orokorragoaren barne.
Herri eskaera	Elkarrizketa bideak ezartzea, herritarren eskaera edota aldarrikapenak helarazteko.	Interes publikok gaiekin zerikusia duten proposamenak, ekimenak, eskaerak eta abar banaka edo beste pertsona batzuekin batera aurkezteko errazten duen tresna da hau.
Presentzia kalean	Herritarrengana hurbiltzen erraztu, gai jakin baten inguruan herritarrekin elkarrizketa zuzena sortu eta horien iritzi zein ikuspegia ezagutzeko erabiltzen diren tresnak.	Prozesu puntualak edo ez oso luzeak direnean edota irismen eta iraupen handiagoko prozesuen hasierako faseetan aplikatzeko ezin hobekak dira tresna hauek.

5. FASEA GAKOAK IDENTIFIKATUZ: EMAITZEI BURUZKO TXOSTENA OSATZEA.

Partaidetza prozesuaren faseak amaitu ondoren, emaitza txosten bat osatuko da analisi metodologia ezberdinek erabiliz. Txosten horren barne egongo dira Partaidetza Fasean lortutako emaitzak, baita prozesu osoan zehar sortu ahal izan diren gorabeherak ere.

Txostena osatu ondoren, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren aurrean aurkeztuko da, azken horrek egiaztatu eta balioetsi dezan. Azken pauso gisa, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak ere hori balioetsi beharko du. Dokumentu horretan bildutako ondorioak erabakiak hartzeko prozesura atxikiko dira.

6. FASEA NEURRIAK HARTUZ: PROZESUAREN EMAITZEN BERRI EMATEA ETA KONPROMISOAK HARTZEA.

Prozesuaren emaitzen eta Foru Aldundiak hartutako konpromisoen berri ematea bereziki garrantzitsua da, baldin eta helburu nagusia bada herritarren artean partaidetza kultura finkatu eta erabakiak hartzeko prozesuetan herritarren inplikazioa sustatzea.

Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da, partaidetza prozesuan zehar lortutako emaitzak oinarritzat hartuta erabaki tekniko eta politikoak hartu ondoren, herritarrek egindako ekarpenak balioetsi ondoren, Foru Aldundiak berezko jotzen duen edukiari, hain zuzen ere proiektura edo ekimenera atxikiko duenari buruzko itzul-keta egitea.

2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak, herritarren partaidetzari buruzkoak, 16. artikuluan xedatzen du, partaidetzazko deliberazio prozesua amaiturik, honen ardura duen pertsonak prozesuko aktak igorriko dizkiola Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, hala egokituz gero lortu diren ondorioak adierazita.

Jasotako dokumentazioa oinarritzat hartuta, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak txosten bat osatuko du partaidetza prozesuari buruz. Bertan, eztabaidatutako gaiei buruzko proposamenak jasoko dira, pertsonak eta entitateek egindako proposamen kopuru eta motak zehaztuz, horiek sexuaren eta entitate motaren arabera sailkatuta. Txosten hori Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordera eta departamentu eskudunera bidaliko da.

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak txosten hori argitaratuko du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez ahalik eta hedapen handiena emanez. Partaidetzarako Herritar Erakundeek Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei

jakinaraziko zaie txosten hori argiratu dela, baita prozesuaren inguruan interesa formalki adierazi duten pertsona zein entitateei eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei ere.

Hiru hilabeteko epean, gaiaren eskumena duen departamentuak aurretiko txostena eman ondoren, deliberazio prozesuan egindako ondorioek hartu beharreko erabakian edo politikan zein eragin duten zehaztuko du Foru Aldundiak. Zehazki, Foru Aldundiak zehaztu beharko du aurkeztutako ondorioek proiektuari uko egitea esan eskatzen dute; beste proiektu bat aurkeztea eskatzen duten; hori aldatzea eskatzen duten; edo aitzitik, proiektuarekin hasiera batean proposatutako baldintza berdinetan aurrera egitea eskatzen duten. Proiektua aldatzea erabakitzen badu, bertan egingo dituen aldaketak modu xehatuan zehaztu beharko ditu.

Foru Aldundiaren erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da, eta partaidetzazko deliberazio prozesuaren emaitzak ez jarraitzea erabakitzen badu, horretarako arrazoiak eman beharko ditu. Ildo berean, 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki

Erakundeei buruzkoak xedatzen du partaidetza prozesu bidez hartutako edozein erabaki arrazoitu egin beharko dela, bereziki toki erakundeak partaidetzazko deliberazio prozesuaren emaitzak kontuan hartzea erabakitzen duenean.

Partaidetzazko deliberazio faseari amaiera ematen dio Foru Aldundiaren erabakiak, eta horren bidez, prozeduraren izapideak aurrera egiten du.

ITZULKETA:

Nola iritsi jendearengana? nola jakinarazi ditzakegu emaitzak eta nola eman ditzakegu erantzun egokiak?

Modu batean ala besteak partaidetza prozesuan parte hartu duten pertsonen eta entitateen emaitzen berri emateko garaia da. Emaitzen itzulketa edo berri emate hau ez zaie partaidetza ekimenean zuzenean parte hartu dutenei bakarrik egin behar; modu batean ala bestean horren berri izan zuten pertsonen edota prozesu horren publiko objektibo direnak ere kontuan hartu behar dira.

Partaidetza prozesuaren lortutako emaitzen berri emateko, partaidetza prozesuaren komunikazio faseko bideak erabiliko ditugu berriro.

Horretarako, aukera ezberdinak (modu sekuentziatu, koordinatu eta ez-baztertzailean) erabiltzea proposatzen dugu: hau da, itzulketa ohiko komunikabideen bidez egitea (prentsa, irratia, telebista eta abar); itzulketari buruzko txostena Herritarren Partaidetzako Atariko itzulketa atalean

argitaratzea; sare sozialen bidez horren berri ematea; partaidetza prozesua herritarrei ezagutzera emateko hitzaldiak egin diren leku beretan bilerak edota informazio hitzaldiak egitea; prozesuaren emaitzei buruzko informazioa erreferentziako lekuetan jartzea eta abar.

Nola prestatu itzulketak saioak eta horretarako materialak?

Itzulketari buruzko informazioa eredu komun batzuen arabera izan beharko da, informazio hori ezagutzera emango den ingurunera egokitutakoa:

1

Argitasuna eta ulergarritasuna: Herritarrek erraz ulertzeko modukoa izan beharko da Foru Aldundiak partaidetza prozesuaren inguruan emandako erantzuna. Ikuspegi eraikitzailearen arabera ekarpen guztiak jorratuz, horiei erantzuna emango zaie.

2

Formatua: Foru Aldundiaren webgunean, partaidetzari buruzko atarian edota bestelako formatu batean argitaratzen den informazioa egiazkoa, ulerterraza, ez diskriminatzailea, argia eta zehatza izan beharko da. Horretarako, bideoak, argazkiak, marrazkiak edo bestelako edozein laguntza zein euskarri dokumental erabiliko da, herritarrei emandako informazioa hobeto ulertzen laguntzeko.

3

Irisgarritasuna: Argitaratzen den informazioa irisgarria izan beharko da edozein pertsona motarentzat, doakoa, egokia denboran, kalitate egiaztatuzkoa, segurua, kanal zein formatu anitzekoa eta berrerabilgarria. Halaber, elkarreragingarritasuna ere bermatu beharko da. Halaber, edozein ezintasun duten pertsonak informazioa atzitzeko eskubidea bermatuko da; horretarako, eskuragarri dauden baliabide teknologiko eta ekonomikoen arabera, herritar guztiak informazio horrekiko irisgarritasunaren aurrean berdintasun egoeran daudela bermatzeko.

7. FASEA

LANA BALIOETSIZ: PARTAIDETZA PROZESUAREN EBALUAZIOA

Amaitzeko, kalitate demokratikoko irizpide batzuk ezarriko dira Foru Aldunditik sustatzen diren partaidetza prozesuak ebaluatzeko:

1

Prozesuaren koordinazioari buruzko irizpideak: adostasun politikoa, zeharkakotasuna, konpromiso politikoa, aurretiko partaidetza dinamiken integrazioa, partaidetza helburuak eta baldintzak, baliabideak.

2

Pertsona eta kolektibo parte-hartzaileei buruzko irizpideak: hedapena, aniztasuna, ordezkartza.

3

Jorrotutako gaiari buruzko irizpideak: Garrantzia, administrazio eskumena edo esku hartze gaitasun administrazioa, eskaeraren izaera.



4

Partaidetza metodoari buruzko irizpideak: partaidetza maila, proposamenerako gaitasuna, informazioaren kalitatea, hausnarketaren kalitatea, ebaluazioa.

5

Prozesuaren ondorioei buruzko irizpideak: eragina, emaitzen egiaztapen publikoa, ikaskuntza, elkarrizketarako gaitasuna, lankidetzaren maila.

Abian jarritako partaidetza prozesuen etengabeko ebaluaziorako adierazle multzo komun eta partekatu batean islatuko dira kalitate demokratikoko irizpide horiek guztiak.

Era horretan, prozesu bakoitza ebaluatzeaz gain, proiektu horien arteko alderatze esparru bat sortuko da, etengabeko hobekuntza irizpideak epe motz, ertain edota luzera txertatzeko.

BIBLIO GRAFIA

Colino, C. y Del Pino, E. “Las nuevas formas de participación en los gobiernos locales”

Universidad Rey Juan Carlos, UNED y Universidad Autónoma de Madrid. 2003

Hainbat egile. “Libro blanco de democracia y participación ciudadana para Euskadi”. Eusko Jaurlaritza 2016.

Bakeaz. “Guía para el diseño y la dinamización de procesos participativos en las Agendas

“21 Locales de Cantabria” Consejería de Medioambiente de Cantabria. 2007.

Blanco, I. y Font J. “Polis, la ciudad participativa” Diputación de Barcelona. 2006.

Ihobe: “Guía para la puesta en marcha de mecanismos de participación”. 2004.

Hainbat egile. “Cómo realizar un proceso participativo de calidad. Guía práctica”. Eudel 2009.

Hainbat egile. “Innovación democrática y participación ciudadana en el Gobierno de Cataluña” Generalitat de Catalunya. Departamento de Relaciones Institucionales y Participación. 2007.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA